

GETXO / Bigarren eskuko liburuak salduta, 6.000 euro baino gehiago bildu dituzte Sahararako

Larunbatean amaitu zen aurten lehenengo aldiz egin den Getxoko Bigarren Eskuko Liburu Azoka. Ekimenak arrakasta handia lortu eta bisitari ugari bildu ditu Algortako Telletxe plazan. Horrela, pasa den ostegunean hasi zen jarduera honetan 9.500 bat liburu saldu dira, salneurri sinbolikoetan (euro bat eta 3 euroren bitartean aleko). Bildutako dirua Ausserd-eko Basiri eta Sowetoko biktimak izeneko eskolak birgaitzera bideratuko da. Guztira, 3.000 hurrek baino gehiagok ikasten dute Tindoufeko (Sahara) Lehenengo Hezkuntzako ikastetxe hauetan. Ekimena Euskal Herriko ikasleen Gurasoen Elkarteak (EHIGE) abiatu zuen ' Ikasle bat, adreilu bat ' kanpainaren baitan, baina Getxoko Kultur Etxearen laguntza ere izan zuen. Izan ere, salmentan zeuden liburuak udal liburutegiek bere fondoetatik emandakoak ziren. Salmentei dagokienez, arrakastatsuak izan dira. Horrela, aurtengo prestatutako liburu kopuruaren %90a saldu da. Aurten gai anitzeko liburuak saldu dira, bai eta bilduma osoak eta entziklopediak ere.